

## Zenbaki egunak

**G**aurkoan ere, hirigunera bidean, Florida parkeko zebrabide semaforoduna zeharkatu behar izan dut. Ez dut semaforo hori sobera maite: panel tiki 1ean, oinezkoentzat 17 segundo eskaintzen ditu eta autoentzat –markatzen ez baditu ere– 100 segundo, hau da, oinezkoentzat baino 14 bider denbora gehiago; eta, halaber, kasik miragarriro, hor ikusiko dituzu herrenak eta makuludunak ere lasterka 1ean. Bai: konparazio guztiak gorrotagarriak dira, baina nago batzuk gutxienez argigarriak direla. Eta Floridako kafetegri kristalezkora sartu naizelarik, libretan azken aldian jasotako zenbakiei erreparatu diet, eta halaber sortu zaizkidan konparazioekin kasik ongiezik sentitu naiz.

Irakurri dut Zaraitzutik zein Erronkaritik artzainek 6 eguneko bidaia egin behar izaten dutela beren artaldeak Bardeetara eramateko –eta oroitu dut Otsagabian bazela haginlari 1, kontsultan honako oharra ipinia zuena: “Haginak ateratzen dira: oinazearekin, 1 pezeta; oinazerik gabe, 2 pezeta”–. Irakurri dut, oinazez irakurri ere, protestak protesta eta Espainiako armadarekin lotutako hitzarmena medio, Bardeetako

udalek, Zaraitzuko zein Erronkariko udalek eta Olibako monasterioak 2.300.000 euro jasoko dituztela. Nafarroatik irten gabe, irakurri dut Sanzen Gobernuak euskarazko hedabideetarako aurtan 310.000 euroko partida aurrekontuarekin alderaturik, %96,7 gutxiago –kuraia on Euskalerrria irratia, Ttipi T t a p a telebista..!–



ZALDI EROA

Bien bitartean, irakurri dut Eusko Jaurlaritza euskararen erabilera sustatzearren onartutako 13.100.000 euroetatik, hedabideetarako 5.700.000 bereizi dituela. Baina irakurri dut, halaber, Eusko Jaurlaritza beraren Etxebizitza eta Kultura sailek 700.000 euroko diru laguntza eskaini diotela Kepa Junkerari proiektu musikal 1erako, baina lehenago, 2007an, Herrilan eta Klimatologia Zuzendaritzak 200.000 euroko laguntza esleitu ziola *Nómadas del viento* proiekturako –gaitz erdi: musikariak Arriaga antzokian abenduan eskaini zituen kontzertuen irabaziak Diamon

Children elkarte irabazirik gabe koarentzat omen...–. Eta irakurri dut ETakoek EITBren kontra egindako atentatuak 4.000.000 euroko kalteak sortu dituela –ez dut politikara gehiago lerratu nahi baina, oinazeak oinaze, zenbat diru gastatuko ote dute presoengintza familiarrek eta erakundeek? Zenbat diru beharko ote da herri honetan hilero bizkartzainei ordaintzeko? Zenbat –kultur, hizkuntz– proiektu ez ote daitezke bideratu dirutzar horrekin?–. Bai: konparazio guztiak gorrotagarriak izan edo ez, argigarriak, izan, badira, eta

okaztagarriak zenbaitetan, eta 11 galdera eragiten didate, hala nola “Zer egiten dut hemen? Nora joango naiz?”. Baina sobera sumindu eta ezer larriagorik esan edo erabaki baino lehen, egin dezadan Donald ahateak bezala, eta konta dezadan 100 arte: 1, 2, 3...

Baina 100 arte kontatu arren, sumindura eta nazka berdintsuak dira. Eta, ez jakin zergatik, gogoia berriro ere Pirinioetara joan zait, han bai baitago herrixka 1 agintariei halako eskari bitxia egin diena, alegia, kanpandorreko erlojuak orduetan eta erdietan jotzeaz gain, laurdenetan (15') eta erdietan (30') ere jo dezala, zertarako eta herritarrek hain bakarrik senti ez daitezten. Udaberriaren agian Bardeetatik Zaraitzura eta Erronkarira itzuliko diren artzain bakanekin egin beharko dut 1 eta herrixka horretara bildu –badaezpada ere 2 pezeta harturik–. Ziur nago, behinik behin, han ez dela semafororik egongo. ■

Gogoa Pirinioetara joan zait, han bai baitago herrixka 1 agintariei halako eskari bitxia egin diena, alegia, kanpandorreko erlojuak orduetan eta erdietan jotzeaz gain, laurdenetan (15') eta erdietan (30') ere jo dezala



irudia:

Antton Olariaga